

OINHERRI EGITASMOA

Xedeak eta elkarlanerako ildo eta proposamena

2019ko udazkena





SARRERA

2012an Andoainen Andoainen **haurren hezkuntza eta aisia beste modu batera egin zitezkeela amesten** genuen 6 eragile elkartzen hasi ginen. Teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, benetako parte hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin, hainbat urrats eman ditugu. Bide horretan taldea handitzen eta aberasten joan da, eremu desberdinetako eragileak batuz.

Txosten honen helburua, Oinherri egitasmoaren osaketa, printzipioak, lan ildoak eta elkarlanerako aukerak aurkeztea da.



LAN TALDEA

Gaur egun 14 eragilek osatzen dugu OINHERRI egitasmoko talde eragilea. Lan taldeko kideok hilean behin elkartzen gara, eginiko lanen azalpenak elkar banatzeko eta proiektuaren inguruko zehaztapenak lantzen jarraitzeko.-

- Aisiola Ikastolen elkarteko aisialdi taldea
- Arrasateko Txatxilipurdi Elkartea
- Arremanitz kooperatiba
- Elgoibarko izarra
- Hik Hasi pedagogia ekimena
- Irrien Lagunak Kluba
- Lasarteko Ttakun Kultur Elkartea
- Oarsoaldeko Garapen Agentzia
- Pil-pilean elkartea
- Plisti Plasta familia eta jolas gunea
- Tabakalera
- Topagunea
- Urtxintxa Bizkaia
- Urtxintxa Gipuzkoa

Gogoeta eta **ezagutzaren eraketa** zein **ekoizpen kolektiboa** egiten dugun taldea gara, **komunitatearen parte-hartzetik** eta **euskararen erabileratik** abiatuz **hezkuntza-esparruak** sustatzen dituguna. Kontzientziazioari, oinarrietatik lan egiteari ematen diogu garrantzia, herri hezitzaileak balioetan jantziz eta gure esperientzian oinarrituriko gidaritza eskainiz.



LAN EREMUA ETA XEDEA

Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu. Eta horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura** aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea**; eurek eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide** izanez eta **ingurumen naturala eta kulturala** zainduz, **komunitate-sarea eta auzolana indartzea**, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.



OINHERRIKO PREMISA NAGUSIAK

1.- Haurtzaroaren kultura

Haurtzaroaren kulturaz hitz egiteak, zera onartzea dakar: Hurrek beraien modu etiko, estetiko eta poetikoa dutela mundua ikusteko eta gai direla euren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dioten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeko. Jaiotzetik gara erabakitzekeo gai, eta beraz, **jendarteko kide aktibo gisa ulertu eta onartu behar ditugu haurrak.**

Haurren mundua **ulertzeko tresna jolasa** da, jolas aske eta espontaneo da hain zuzen hurrek mundua ezagutu, ulertu eta biziraupenerako erabiltzen duten tresna. Jolas honek askea izan behar du, arriskatu eta aurkikuntzarako bidea eskaini behar du. Jolasa askatasunez arriskatzeko gozamina da.

2.- Benetako parte hartzea eta erabakitzekeo ahalmena

Parte hartzeak ekintza puntual bat edo aparteko ekintza puntual bat izateari utzi behar dio, eta **gizartea eraikitzekeo** eta bere identitatea definitzeko **tresna** izan behar da, egunerokotasuneko funtzionamendua eraldatuko duena.

Norberari eta komunitate osoari eragiten dioten erabakietan **komunitate osoa hartu behar da kontutan**. Parte hartzeak komunitatearen antolaketa eta funtzionamendua hobetzen du, baita norbanakoen segurtasuna handitu ere, iritzia eman eta entzun izanak autoestimua igo eta berriro ere parte hartzekeo nahia handitzen duelako.

Haurtzaroaren kultura abiapuntu gisa hartuta, haurrak erdigunean kokatzen dituen partaidetza kultura hedatu nahi dugu, herria/auzoa norabide honetan kokatu eta komunitate izaera sendotzea helburu izanik.

Orain arte dena haurrentzat baina haurrak kontutan hartu gabe egin izan dugu. Ikuspegi hau eraldatzea bilatzen dugu ordea.

Haurrak jendarteko subjektu aktibo gisa erdigunean ipiniz, ahulena indartu eta jendartean bazterretan dauden kolektiboaren egoera (emakumeak, 3. adinekoak, etorri berriak...) ikusarazi nahi dugu.



OINHERRIKO PREMISA NAGUSIAK

3.- Aisia hezitzailea

Haur eta nerabeentzako aisiak, eta berdin helduentzakoak ere, **balio hezitzaileak** ekarri behar ditu berekin, **bai edukietan eta baita egiteko moduetan** ere. Aniztasunaren errespetua, parekidetasuna eta aukera berdintasuna dira horietako hiru; eta laugarrena, bestearen onarpena, inklusibotasuna. Oinarrizko eta abiapuntuko balio gisa hartzen ditugu hauek.

Balioetan oinarritutako aisialdia lantzeak, aisialdi eredu ez merkantilista garatzea suposatzen du guretzat. Herritar guztiei erantzun eta **tokian tokiko behar, nahi eta asmoei erantzun** behar die, bertakoek eta bertarako diseinatuta egon behar dela uste dugu.

Guzti honekin, hezkuntzaren eremu zabalean, hezkuntza ez formalari eta informalarari ere tokia egin nahi diogu, **hezkuntzaren ikuspegi integrala** aldarrikatu nahi dugu. Hezkuntza prozesu iraunkorra da gure bizitzetan eta horretan eragile ezberdin askok parte-hartzen dute, beraz hezkuntzaren ardura guztion artean partekatzen hasteko garaia dela diogu. Herria, eta **herritar guztiak, eragile hezitzaile eta hezkuntza proiektu komunitario bateko partaide potentzial gisa** ulertzen ditugu.

4.- Euskalduna

Euskara erdigunean jarritz, txikia erdigunean jarritz, herrietako eta tokian tokiko **hizkuntza aniztasunari aitortza** egiten diogu, baita Euskal Herriko zein herri bakoitzeko errealitate zehatzari ere. Euskara erdigunean jartzeak ez du eskatzen beste hizkuntzak galtzea, kontrakoa baizik: **hizkuntza txikiaren alde egiten den oro hizkuntza guztien aldekoa da.**

Euskara eskolarekin eta derrigortasunarekin lotu izan da eta ondorioz, erdarak hartu du kaleko espazioa. Honi buelta eman behar diogu, **kaleetan euskaraz eta gozamenetik bizitzeko aukerak** sortuz.

Euskara, balio bat da bere baitan, **balio hezitzaile** bat, **inklusiboa** eta **irekia** delako.



OINHERRIKO PREMISA NAGUSIAK

5.- Aniztasunean berdin eta parekide

Komunitategintza egiteko **lehen oinarria aniztasuna onartzea** da. Anitzak gara arrazan, generoan, hizkuntzan... baita, ondorioz gurutzatzen gaituzten hainbat zapalkuntzatan ere. Jendartea geroz eta anitzagoa den heinean gure arteko loturak, korapilo eta gurutzaketak anitzagoak dira, **intersekzioan bizi gara**.

Aniztasuna aberastasuna da, eta aberastasuna erdigunera ekarri beharko dugu. **Feminismotik eraginez**, denok gara askotarikoak, denok gara banako eta bakar. Aukera eta berdintasun maila beretik abiatuz denok gara gaitasundun eta eskubidedun, haurrak ere bai. Berdintasunak **komunitate-zentzua** bermatzen du.

Aukera berdintasuna bermatu behar da, eta hau erreala izango bada **ahulena** jarri behar da **erdigunean**: umea eta euskara, gure kasuan.

6.- Ingurumen naturala eta kulturala zaindu

Gure ingurumen naturala eta kulturala **ezagutzea, zaintzea eta lantzea** garrantzitsua da. Herria handitzen joan den heinean **haurra eta naturaren arteko harremana txikitzen joan da**, honek ekarri dituen ondorioekin: gizentasuna, estresa, hiperaktibitatea... Erlazio hori berreskuratu beharra daukagu, ingurumen natural eta kulturalaren jakitun eginez.

Ingurumenari sortzen dizkiogun **kalteez jabetu** eta **kontzientzia hartu** behar dugu, baita **hizkuntza eta kulturen arteko erlazioa zaindu** ere. Honetarako beharrezko da **Euskal Herriaren kultur aniztasunean oinarritzea**, kolektibo eta norbanako guztien benetako parte-hartzea aniztasun honen aitortzarekin soilik lortuko baitugu



OINHERRIKO PREMISA NAGUSIAK

7.- Komunitate sarea eta auzolana

Hau dena egiteko modua, komunitatearen eraikuntzaren parametrotan ulertzen dugu, komunitatea indartuz eta sareak sortuz, herri mailako ardura gisa ulertuz.

Erakunde anitzen artean egin behar dugu bidea: haur eta nerabeak, hezkuntza komunitatea, instituzioak, eragile sozialak, herritarrak ... Parte hartzea subjektu guztiak antolatzeko tresna baino ez da funtsean; Euskal herrian auzolanaren bidez bereziki egin izan dugun zerbait.

Eraldaketaren alde lan egingo duten herritarren parte hartzea nahi dugu. Jendarteko kide guztiak subjektu aktibo bilakatuz, eta herriko beharrei, herri mailako arduratik, komunitatetik eraikitako erantzun integralekin erantzunez.

Haurren ikuspegitik abiatuta 0-99 adin tartean eragin nahi dugu, komunitatea prozesura batuz, kolektibo guztietako pertsonen arteko harreman pertsonalei garrantzia emanez, zaintza erdigunera ekarriz eta elkarrekin, herria egin.



ORAIN ARTEKO IBILBIDEA

Hiru lan-ildotan mamitzen da gure proposamena: teoria eta praktikaren arteko giltzaduraz gogoeta egiten duten liburuxkak argitaratu eta formazioa eskaintzea, jardunaldi zein mintegiak antolatzea eta Euskal Herriko hainbat herritan Oinherriko premisak aintzat hartuko dituzten proiektu hezitzaileak sustatzea.



1.- Jardunaldiak

Oinherriren ibilbidean hainbat jardunaldi antolatu izan ditugu. Lehenengo jardunaldiak oinarria zabaltzeko eta lan taldearen abiapuntuko hausnarketak plazaratzeko balio izan zuten, gerora oinarri horiek elikatzeko hainbat jardunaldi egin ditugu:

“I. Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldiak:

2013ko maiatzean, haurra erdigunean jarriko duen eskola eta herri parte-hartzailearen inguruan hausnarketa egitera bostehundik gora lagun bildu ginen “Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldietan. Irakaskuntza munduko langile eta ikasleez gain, alor ugaritako behargin, ordezkari eta teknikariak batu ginen, Donostiako Kursoal jauregian. Francesco Tonucci 'Frato' psikopedagogo italiarra izan genuen gurekin bi egunetan.

Monografiko [honetan](#) jaso zuen HIK HASIk jardunaldietako eduki guztia.

“II. Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldiak:

2015eko apirilaren 24-25ean. “Aniztasuna, eskolan eta herrian” titulupean Katalunia, Finlandia eta Euskal herriko zenbait esperientzia elkar banatu genituen bertaratutako 537 kiderekin batera. Aniztasuna izan zen jardunaldia lotu zuen hari-muturretako bat: alde batetik, haur guztiak barne hartuko dituen eskolak eta herriak izan beharko lituzketen ezaugarriak bistaratu ziren; eta bestetik, haurra bere osotasunean hauteman eta garatzeko bidea irekiko dion ingurunearen gakoak plazaratu.

Monografiko [honetan](#) jaso zuen HIK HASIk jardunaldietako eduki guztia.

“I. Hezitzaileentzako jardunaldiak”:

2015eko azaroaren 14ean OINHERRI egitasmoak sorturiko liburuxka sortan oinarrituriko lehen trebakuntza saioak eman genituen Donostiako Tabakalera, egitasmoa osatzen dugun eragile desberdinok elkarlanean emanak. Tailer hauek eskaini genituen: Nola sustatu haurren parte hartzea ikuspegi feministatik; Parkeak bizitzeko modu berriak; Nola egin udaleku parte hartzaileak; Nola egin ludoteka parte hartzailea.



1.- Jardunaldiak

Zestoan eginiko herrien arteko topaketak:

Herri Hezitzaileek beraien esperientziak partekatzeko eta hausnarketarako tarte hartu genuen 2016ko udaberrian, maiatzaren 21ean Zestoako herri eskolan egindako jardunaldietan. Herri mugimenduetako ordezkariak, udal ordezkariak, hezitzaile eta irakasleak... askotariko pertsonak hartu genuen parte ekitaldian.

Topaketa honetan herri hezitzaileen dinamikan parte hartzen duten herrietako batzuk beraien lanaren berri eman zuten: Zestoa (herri hezitzaile gisa ematen ari diren lehen pausoak), Tertanga (haurrekin egindako euskararen jolasgunea), Dima (haurren parte-hartzearekin egindako hainbat egitasmo), Elizondo (baratze-hezitzaileen proiektu, Mañaria (haurrekin osaturiko aurrekontu parte-hartzaileak), Gernika (Astra Txiki kulturgune parte-hartzailea), Usurbil (hiri-antolamendu orokorra egiteko prozesuan haurren eta gazteen parte-hartzea), Orio (herri curriculumaren garapenean haurrek eta gazteek nola parte hartu), Otxandio (Herri-ola, haurrak eta gazteak parte hartzen proiektua), Baigorri (herri hezitzaile gisa egiten ari den ibilbidea).

“III. Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra” jardunaldiak:

2017ko maiatzak 19 eta 20an “Bestelako harreman eredu bat posible da” izenburupean Euskal Herria, Finlandia eta Espainiar Estatuko hainbat adituren parte hartzea izan genuen. Herri-mailan, talde-dinamiketan, eskola-giroan, edota familia-testuinguruetan bestelako harreman-eredu batzuk sustatzea izan zen jardunaldiaren helburua, harreman osasuntsuak, indarkeriagabekoak, errespetuzkoak, horizontalak eta parekideak posible direlako eta norberaren garapenerako eta komunitatearen ongizaterako berebiziko garrantzia dutelako.



1.- Jardunaldiak

II. Hezitzaileentzako jardunaldiak:

2017ko urriaren 28an 70etik gora hezitzaile elkartu ginen Donostiako Tabakalera. Lehen atalean, lantegietan Oinherri argitaratutako hiru liburuxken edukiak modu praktikoan landu nahi izan genituen (Jolasa, eskubidea eta errealitatea; Arte hezkuntza eta prozesu kolaboratiboak; eta Nola egin udaleku parte hartzaileak tailerrak). Bigarren atal batean, Crysallis EHako Aingeru Mayor, Bilgune Feministako Mireia Delgado eta HUHEZIKo Amelia Barquinekin batera “Gorputz anitzak bizitzeko modu anitzak” izeneko eztabaida mahaiarekin jardunaldia itxiz.

Donostian eginiko herrien arteko topaketak:

2019ko apirilean, Donostiako EHUko magisteritza fakultatean elkartu ginen, Herri Hezitzaileen ikuspegia aberastu eta Oinherri egitasmoaren balorazioa elkarrekin osatzeko. Topaketa honen lehen zatian hiru hizlarik parte hartu zuten: Lorea Agirrek Oinherriren oinarriak azalduz, Iratxe Retolazak “Kulturak zeharka gaitzan, kulturak zeharka ditzagun” hitzartzea eginez eta ostera, Azpeitiko “Herri Hezitzailea” Amaia Zarrabeitia eta Egoitz Arrutiren artean aurkeztuz. Jarraian, bertaratutako lagunekin, lan taldetan batu eta Oinherri egitasmoaren aurrera begirako ildoan inguruan hausnartu genuen. Dokumentu [honetan](#) dago jasota jardunaldiak emandakoa.



2.- Liburuxkak eta formazioak

Azken lan ildoak **teoriatik praktikara salto** egitekoa da. Oinherri osatzen dugun eragile desberdinetako kideok haur eta gazteen heziketan jarduten dugu eta gure lana oinarri gisara hartuz, herritar ororentzako erabilgarri diren liburuxkak kaleratu ditugu. Haurren heziketa guztion ardura izanik formatzeko aukera guztiontzako irekiz.

- o **Haurren aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen** (2015, Sorguneak ikertegia, HUHEZI, MU) [PDFn lotura honetan](#)
- o **Nola egin udaleku parte hartzailea** (2015, Amarauna Aisialdi Elkarten sarea) [PDFn lotura honetan](#)
- o **Nola sustatu haurren parte hartzea ikuspegi feministatik** (2015, Bizkaiko Urtxintxa Eskola) [PDFn lotura honetan](#)
- o **Nola egin ludoteka parte hartzailea** (2015, Txatxilipurdi Elkarteak) [PDFn lotura honetan](#)
- o **Parkeak bizitzeko modu berriak** (2015, Alfredo Hoyuelos eta Txusma Azkona, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea) [PDFn lotura honetan](#)
- o **Jolasa eskubidea eta errealitatea** (2017, Alfredo Hoyuelos eta Txusma Azkona)
- o **Arte Hezkuntza eta prozesu kolaboratiboak** (2017, Tabakalera)



3.- Herrien sarea

Hirugarren lan ildoan **herri hezitzaileen sarea** osatzea da, lehen aipatutako **oinarri guztiak biltzen** dituen egitasmoa izanik. Bertan, **herrigintzak, hezkuntzak eta udalak** bat egiten dute.

Euskal Herri mailako egitasmoa bultzatu nahian gabiltza. 2015. urtean herrialde desberdinetako 8 herritan herri proiektu hezitzaileetatik abiatzen lagundu genuen, horrela gure filosofia hedatuz, hau baita talde honetan gauden eragileok lortu nahi duguna.

Nafarroan **Baztango bailara** osatzen duten herriekin hasi ginen lanean, haur eta nerabeekin saioak eginuz eta herri bakoitzak autonomoki lanean jardun arren bailara izaera emanaz proiektuari.

Baxe Nafarroan **Baigorriekin**, herritarrekin ametssetako Baigorri marraztuz.

Gipuzkoan errealitate desberdinak dituzten hiru herrirekin batera abiatu genuen bidea, **Soraluze eta Arrasaterekin**, eta Donostiako **Egia** auzoarekin. Hiru herri/auzoetan herritar zein eragile ugari murgildu ziren proiektuan.

Bizkaian **Otxandio** eta **Dima** dira herri hezitzaile izateko bidean abiatutakoak, eta Araban berriz, **Agurain**.

Azpimarratzekoa da herri hezitzaile izateko **ezinbestean bete beharreko oinarrietako bat** dela **hiru zutabeen arteko** elkarlana. Hau da, herrigintzako eragileek, hezkuntzakoek (formal zein ez formalekoak) eta administrazio publikoak (udalak) batera jardun behar dute, eraldaketa herri mailakoa izango delako etxetik, eskolatik, udaletik herrira eta herritik etxera, eskolara eta udalera.

Herri bakoitzaren errealitatetik abiatuz tokian tokiko prozesuak jarri genituen martxan, bertakoek eginak, bertakoentzako eta bertakoekin. Ez gatoz inor ordezkatzera, herrian dagoena indartzera baizik.



OINHERRIREN EGITURA SENDOTZEKO PROPOSAMENA

Erronka berrien artean, herrien sarea indartzeak lehentasuna du guretzat, “Herri Hezitzaileen Sarea” izendatuz, hori baita 2019ko udaberrian Donostian egindako topaketatik ateratako ondorio nagusia.

Egitasmoa osatzen dugun eragileon nahia herrien sare lanarekin jarraitu, oinarri filosofikoak aberastu eta trebakuntza zein aholkularitza lanetan jarduten jarraitzea da. Baina horretarako, ezinbesteko ikusten dugu sare hau baliabidez hornitzea, bide horretan ezinbestekoa ikusten dugu berau kudeatuko duen pertsona baten figura.

Horretarako Oinherriko 7 printzipioekin bat egiten duten herrien eta Oinherriren artean hitzarmen bidezko adostasunak lortzea proposatzen dugu. Hitzarmen hauetan Oinherrik zein herriek hainbat konpromiso hartuko dituzte.



1.- Hitzarmena

Hitzarmena sinatzeak Herrien eta Oinherriren arteko harremana sendotzen du, bakoitzari betebeharrak jakinak esleituz.

Herri bakoitzak OinHerriekin Hitzarmena sinatzean ondorengo betebeharrak izango dituela onartzen du:

- I. “OinHerri, Herri Hezitzailea”n sartzeko konpromisoa hartzen duela.
- II. Herriak aurrera eramango dituen egitasmo, ekintza eta abarretan Hitzarmen honek islatzen dituen zazpi oinarriak lantzeko konpromisoa hartzen duela.
- III. “OinHerri, herri hezitzailea” egitasmoa finantzatzeko dagokion kuota ordainduko duela.

Oinherri egitasmoak, berriz, beste 3 betebeharrak izango dituela adierazten du:

- IV. “OinHerri, herri hezitzailea”k herrien arteko esperientzien trukea erraztuko duela, honetarako sorturiko www.herrihezitzailea.eus web gunea baliatuz eta urtean sarea osatzen duten herrien arteko 2 bilera antolatuz.
- V. “OinHerri, herri hezitzailea”k trebakuntzarako eta ezagutzaren eraketa kolektiboa bultzatzeko jardunaldiak antolatuko dituela.
- VI. “OinHerri, herri hezitzailea” “XXXXX” taldearen beharrak ezagutzeko eta aholkua eskaintzeko konpromisoa hartzen duela.

Aholkularitza zerbitzua herriak dituen beharren arabera zehaztuko da:

- Dagoeneko proiektuak martxan dituzten herriei Oinherriren markora nola ekarri edo egokitu aztertzeko aholkularitza eskainiko zaie.
- Proiektu berriak martxan jarri nahi dituzten herriei, egin beharreko bidea zehazten lagunduko zaie eta kanpo zerbitzuak beharko balituzte, haiei buruzko aholkularitza eskainiko zaie.

Hitzarmen hau, herrien aldetik udalak, hezkuntza komunitateko ordezkariak eta herrigintzako kideek sinatu beharko dute ezinbestean.



2.- Arlo ekonomikoa

Herri bakoitzak urtean ordainduriko kuotaren bitartez, Oinherri egitasmoak herrien arteko sarea egituratu eta bere eskaintza bermatzeko aukera izango du, honetarako pertsona baten kontratazioari bide emanez.

Proposatzen diren kuotak:

0-1.000 biztanle arteko herriek	500 euro
1.000-2.500 biztanle	1.000 euro
2.500-5.000 biztanle	1.500 euro
5.000-10.000 biztanle	3.000 euro
10.000-20.000 biztanle	4.000 euro
20.000-50.000 biztanle	5.000 euro
50.000-100-000 biztanle	7.500 euro
100.000 biztanletik gora	10.000 euro

*Oharra: diru eza ez da oztopo izango partaide izateko, 1.000 biztanle baino txikiago den herria bada, batez ere.



Xxx, 2020ko xxxren xxxan

(**HERRI**Aren LOGOA)

Zazpi kontzeptutan oinarritzen da “OinHerri, herri hezitzailea”k proposatzen duen eredia. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu. Eta horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

*Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura** aitortzea; hori oinarri hartuta, **haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea**; eurek eraikitako **aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide** izanez eta **ingurumen naturala eta kulturala** zainduz, **komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.***

Haurrez dihardugunean, jendarteko zaugarrienez ari gara; hala nola, etorri berriak, gazteak, emakumeak, adindunak, aniztasun psikiko edo funtzionala dutenak,.. hots, pertsona guztiotaz dihardugu.

Gainera, herriko lantaldea herriko hiru zutabe hauek osatzen dutela ziurtatzen da: Udalak, Hezkuntzak eta Herrigintzak.

Xxx herrian bertan proposatuko dira egitasmoak, herrian ezarritako lehentasunen arabera. Saretzeko bokazioa izango du, parte-hartze metodologiak erabiliz, parte hartzen dugun pertsonak izatetik harago, partaide izatera igarotzeko helburuarekin.

Aldi berean, herriko beste ekimenekin koordinatu beharko dira, eta denak bateratzeko guneak eta praktikak sortzeko aukera eskaini beharko da. Horren baitan, hiru ezaugarri hartu behar dira kontuan:

- Herrian lehendik dagoena ez ordezkatzeko printzipioa.
- Ez dagoena sortzeko printzipioa.
- Herriko bestelako prozesuak kontuan hartzea, eta, ahal dela, bateragarri edo osagarri egitea.

“OinHerri, herri hezitzailea”k herrietako parte-hartze esperientziekin **OinHerri webgunea** elikatuko du, herrien arteko **esperientzien trukea erraztuko** du eta **Xxxko herriarekin harremana** izango du haren beharrak ezagutzeko eta aholkua eskaintzeko.

Xxx-ko herriak, berriz, “OinHerri, herri hezitzailea” egitasmoa bideragarri egiteko asmoz, biztanleriaren arabera dagokion urteko kuota hartuko du kontuan.

AZALTZEN DUTE

- I. Xxx-ko herriak “OinHerri, Herri Hezitzailea”n sartzeko konpromisoa hartzen duela.
- II. Xxx-ko herriak aurrera eramango dituen egitasmo, ekintza eta abarretan Hitzarmen honek islatzen dituen zazpi oinarriak lantzeko konpromisoa hartzen duela.
- III. Xxx-ko herriak “OinHerri, herri hezitzailea” egitasmoa finantzatzeko, xxx euro ordaindukodituela 2.020. urteko kuotari dagokionez.
- IV. “OinHerri, herri hezitzailea”k herrien arteko esperientzien trukea erraztuko duela, honetarako sorturiko www.herrihezitzailea.eus web gunea baliatuz eta urtean sarea osatzen duten herrien arteko 2 bilera antolatuz.
- V. “OinHerri, herri hezitzailea”k trebakuntzarako eta ezagutzaren eraketa kolektiboa bultzatzeko jardunaldiak antolatuko dituela-
- VI. “OinHerri, herri hezitzailea” “XXXXXX” taldearen beharrak ezagutzeko eta aholkua eskaintzeko konpromisoa hartzen duela.

Aholkularitza zerbitzua herriak dituen beharren arabera zehaztuko da:

- Dagoeneko proiektuak martxan dituzten herriei Oinherriren markora nola ekarri edo egokitu aztertzeko aholkularitza eskainiko zaie.
- Proiektu berriak martxan jarri nahi dituzten herriei, egin beharreko bidea zehazten lagunduko zaie eta kanpo zerbitzuak beharko balituzte, haiei buruzko aholkularitza eskainiko zaie.

Xxx-ko herriak eta “*OinHerri, Herri Hezitzaileak sustatzeko elkartea*”k, bertan jasotako konpromiso eta oinarriak betetzearekin bat egiten dute.

BILDUTAKOAK

“OinHerri, Herri Hezitzailea” ordezkaria

Xxx-ko Udalaren ordezkaria

Sinadura

Sinadura

Xxx-ko Hezkuntzaren ordezkaria

Xxx-ko Herrigintzaren ordezkaria

Sinadura

Sinadura

